



**FESTAK**

eta

**DROGAK**

**JAIETAN**

primeran pasatzen ahalegintzen zara ala kontsumitu besterik ez duzu egiten?

DROGAK eta JAIK beti izan dira, eta, eskerrak! Biak erabiltzeak ez du zertan negatiboa izan behar; positiboki ere erabili baitaitezke. Biak ala biak baliagarriak izaten dira eguneroko monotonia eta martxa apurtzeko, eta, gainera, aukera ematen digute haiekin ondo pasatzeko eta disfrutatzeko edo soil-soilik haien kontsumoa egiteko.

Zoritxarrez, gure inguruan dauden errealtate tamalgarrien eraginez ez gara aske izaten jaien eta drogen inguruko erabakiak hartzeko (droga bat noiz kontsumitu eta noiz ez, zein jai mota antolatu...), erabaki askeak ez ditugu hartzen. Horren adierazle ditugu, besteak beste, lan prekarioa, ekonomiaren eta gizartearen ezegonkortasuna, solidaritate ezaren promozioa, sozialki, politikoki eta emozionalki dagoen segurtasun falta eta positiboak izan daitezkeen eredu erreferentzialen gabezia.

Gauzak horrela, eta gure inguruan, ezagutzen ditugun jai gehienak kontsumismora, gau-girora eta ikuskizun soilera mugatzen dira; gainera, gehienetan kultur industriek bultzatuak izaten dira, eta parte hartze eskasa izaten dute.

Eta testuinguru berberean, droga gehienak mafia eta monopolio ustelen esku daude: denak ala denak askatasun indibidualaren eta kolektiboaren etsai. Gainera, droga horiek, gero eta gehiago kontsumitzen dira gure ohiko bizimodutik ihes egiteko, apalankatzeko edota motel-motel gelditzeko, motibaziorik ez dagoelako eta autismo sozialean bizi garelako.

Festen eta drogen arteko nahasketa, askotan nahaste-borrastea, bi era ezberdinetara egin daiteke.

Batetik, drogak (legalak edota ilegalak) modu konpultsiboan hartzen dira, jaiak gau girora eta toki itxietara soilik mugatzen dira, astean zehar sortzen den monotoniaz gain asteburuko monotonia eraikitzen da (asteburuetan ere "betiko martxarekin" jarraitzea), eta helburu nagusi bezala ihesbidea, ahaztura eta egozentrismoa (orain NI, gero NI eta bihar ere NI) bilatzen dugu.


Bestetik, droga kontsumo atsegingarriak eta gozagarriak (legez onartuak edo onartu gabeak) egiten dira, jaien bizipenak eta esperientziak bizi-bizirik izaten dira, egunerokoarekin eta monotoniarekin hausteko erabiltzen dira, eta sormena, alaitasuna eta konpromisoa hartzen da. Guzti-guztia koherenteak eta solidarioak izateari utzi gabe.

Droga-mendekotasunen fenomenoaren normalizazioaren alde (prebentzioan oinarriturik) lanean gabiltzanok, bigarren aukeraren alde egiten dugu; gainera, uste dugu hori aurrera eramán daitekeela. Bertan gaudenok, gazte ala heldu izan, drogak eta jaiak elkarren ondoan joan daitezkeela uste dugu eta aukera hori aurrera eramaten ahalegintzen gara. Dena den, ez uste esperientzia honetatik beti garaile ateratzen garenik, ez baita erraza izaten “drogen bizikidea” izatea.

Edozein modutan ere, zure esku dago jaiak eta drogak ZU KONTSUMITZEA edo IRENSTEA; edo ZUK HAIEKIN DISFRUTATZEA ETA GOZATZEA. Bata edo bestea aukeratu zu zeuk erabakiko duzu, edo besteek agindutakoa beteko duzu?

**Festetan primeran pasa pasatu gabe!**





Droga bat edo bestea kontsumitzeko garaian talde-presioa egon daiteke, baina presio horri kasurik egiten ez dioten pertsona autonomoak ere badaude. Dibertigarria izan daiteke bakoitza burujabea eta askea izaten ahalegintzea, eta norberak bere erabakiak hartzea. Saiatu asper-asper eginda ez gelditzen!

“Helduek” egiten dutena imitatzen duten umeak badaude, baina gaztearena egiten duten “zaharrak” ere bai. Zurrutean ibiltzeak ez gaitu diferente egiten. Edaten ibiltzeak ez gaitu ez “helduago” ezta “gazteago” egiten, horrela gabiltzanean, askotan barregarri geratzen baikara!

PUNTUaren bila zabiltzala, non zauden ez dakizula aurki zaitezke; eta, ezustean, puntu eta KOMArenkin topo egiten baduzu, hobe duzu laguntza eskatu, bakar-bakarrik gelditzen bazara nahiko lan izango duzu eta.

Sexualitateek eskaintzen duten menua zabala eta atsegingarria izan dakiguke, beharrezko neurriak hartuz eta eraso sexistekin iraindu gabe. Nazka-nazka eginda eta erreta bazabiltza, hobe duzu antzarrak ferratzera alde egin, eta ondokoak bakean utzi.

Zuri gezurra dela iruditu arren, festa-egunak 24 ordukoak izaten dira; eta hau bene-benetakoa da, ez egin dudarik! Gainera, ez ahaztu festetan denetarako beta dagoela:

disfrutatzeke, deskantsatzeko, lo egiteko...

disfrutatzeke, deskantsatzeko, lo egiteko...

